



Andoingo Udala

2024UDOS0008

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2024/05/30

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 30/05/2024

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu

Marta Lasa Goñi
Garazi Usandizaga Zubiria
Iosu Mateo Torrillos
Haizea Barandiaran Zubillaga
Diego Barrasa Ruiz
Larraitx Arriola Larrarte

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Aritz Alkain López
María Belén Moreno Méndez

EAJ-PNV

Imanol Goenaga Egibar
Idoia Mikelez Alonso
M^a Sagrario Ruiz Fernández

Elkarrekin Podemos

Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia

00000008

Eguna

2024/05/30

Hasiera

19.00

Amaiera

20.01

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Xabier Fondón Pajares – EH Bildu

Maidier Lainez Lazcoz –PSE-EE

Gai Zerrenda:

- 2024/04/25(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- AIU.1 Alde Zaharra AD 1.5 Kale Nagusia 39 hirigintzako esku-hartze eremuan Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren proposamenari hasierako onspena ematea
- Zuzenketa onartzea, Andoingo HAPOko 3-SARMENDI HEAko hirigintza-fitxako C atalean, Egiturazko Hirigintza Erregimeneko Sustapen librea bizitegi-erabilerako guztizko eraikigarritasunaren ehunekoan egindako akatsa.
- Bizitegitarako hiri-lurzoruko eremu finkatueta behe-solairuetako lokalen erabilera aldatzeko udal ordenantza arautzailea aldatzea.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 25/04/2024.

Parte Dispositiva

- Aprobación inicial de la propuesta de modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana en el ámbito de intervención urbanística AIU.1 Casco Viejo AD 1.5 Kale Nagusia 39
- Subsanación del error en el porcentaje de la edificabilidad total uso residencial ¿Promoción libre? del Régimen Urbanístico Estructural, apartado C, de la ficha Urbanística del A.I.U.3-Sarmendi del PGOU de Andoain.
- Modificación de la Ordenanza municipal reguladora para la modificación de uso de locales en plantas bajas en ámbitos



- | | |
|---|--|
| <p>5. Ziako errekastoa bideratzeko eta saneatzeko proiektuan definitutako obrek ukitutako ondasunen behin betiko zerrenda behin betiko onartzeko proposamena.</p> <p>6. Andoingo 2023-2027 Euskararen Erabilera Plana onartzea.</p> <p>7. 2024/04 zk kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena</p> <p>8. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena</p> <p>9. 2024.03.31 datako Kontu-hartzailearen txostena</p> <p>10. Bake Epailearen izendapena.</p> <p>11. Andoingo Udal Talde Sozialistak (PSE-EE), Osoko Bilkurari aurkeztutako eskaera, honek udal-talde politikoei eska diezaien taldeei esleitutako zuzkidura ekonomikoen kontabilitate espezifikoak aurkezteko.</p> | <p>consolidados de suelo urbano residencial.</p> <p>5.- Propuesta de aprobación definitiva de la relación definitiva de los bienes afectados por las obras definidas en el proyecto de encauzamiento y saneamiento de la regata Ziako.</p> <p>6.- Aprobación del plan de uso del euskera del ayuntamiento de Andoain 2023-2027.</p> <p>7.- Propuesta de aprobación de expediente modificativo de crédito nº 4/2024</p> <p>8.- Propuesta reconocimiento extrajudicial de gastos</p> <p>9.- Informe de la Interventora a fecha 31.03.2024.</p> <p>10.-Nombramiento Juez de Paz.</p> <p>11.-Solicitud presentada por el Grupo Municipal Socialista de Andoain (PSE-EE), en la que se insta al Pleno a que solicite a los grupos políticos municipales que presenten la contabilidad específica de las dotaciones económicas asignadas a los grupos.</p> |
|---|--|

Kontrola

12. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 895/2024 zenbakidunetik 1141/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 10/2024. aktatik 12/2024 aktara.
13. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 12.-Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 895/2024 y la nº 1141/2024 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta nº 10/2024 al acta nº 12/2024.
- 13.-Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

- 1. 2024/04/25(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.**
- Lehendabizi, 2024/04/25 datako bazterraldeari dagokion akta irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman da.
- 2. AIU.1 Alde Zaharra AD 1.5 Kale Nagusia 39 hirigintzako esku-hartze eremuan Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren proposamenari, hasierako onspena ematea.**
- Kontuan harturik Mikel Rodríguez Mendicutek, Construcciones Orbero SAre izenean eta ordezkari zuzen gisa, 2022ko urriaren 13an Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren dokumentua aurkeztu zuela, HIE 1 "Alde Zaharra" AD hirigintzako esku-hartze eremuan. 1.5. Kale Nagusia 39, Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak 2022ko urrian idatzia, eta Ekolurrek 2022ko maiatzean idatzitako Ingurumen Dokumentu Estrategikoa.
- Kontuan harturik 2022ko azaroaren 10ean ingurumen-txosten estrategikoaren – ingurumen-ebaluazio



estrategiko sinplifikatuaren eskaera bidali zela.

Kontuan harturik 2023ko otsailaren 7an, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena jaso zela Udalean. Ebazpen horren bidez, Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoa egin zen, HIE 1 "Alde Zaharra" AD hirigintzako esku-hartze eremuan. 1.5. Kale Nagusia 39.

Txosten hori Construcciones Orbero SA enpresari bidali zitzaion 2023ko otsailaren 10ean.

Kontuan harturik, 2024ko urtarrilaren 17an, Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak egindako aldaketa puntualaren inguruko herritarren partaidetzarako programa aurkeztu zela Udal honetan, 2024ko urtarrilean.

Kontuan harturik 2024ko otsailaren 12ko idazkiaren bidez, herritarrek parte hartzeko programa zuzentzeko eskatu zela, idazkian bertan adierazitako moduan. Zuzenketa hori 2024ko otsailaren 14an aurkeztu zuen Construcciones Orbero SA enpresak.

Kontuan harturik Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landa Eremuko Informazio Batzordeak 2024ko otsailaren 15ean irizpena eman ondoren, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 29ko laugarren erabakiaren bidez, AIU.1 Alde Zaharra AD.1.5 Kale Nagusia 39 hirigintzako esku-hartze eremuan Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntuala formulatzeko espedientearen hasiera onartu zuela, eta herritarrek parte hartzeko programa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoan laburbilduta argitaratzea erabaki zuen.

Kontuan harturik herritarrek parte hartzeko programa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko martxoaren 19an (56. zk.).

Kontuan harturik 2024ko martxoaren 6an, Mikel Rodríguez Mendicute jaunak, Construcciones Orbero SArenean, Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren dokumentua aurkeztu zuela Udalean, HIE 1 "Alde Zaharra" AD hirigintzako esku-hartze eremuan. 1.5. Kale Nagusia 39, 2024ko otsailean Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak idatzia.

Kontuan harturik 2024ko apirilaren 9an berriro aurkeztu zela aipatutako dokumentua, eta udal-arkitektoak eskatutako zuzenketa erantsi zaizkio.

Ikusirik 2024ko apirilaren 10ean udal arkitektoak eta 2024ko apirilaren 22an Hirigintza eta Zerbitzuetako Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2024/04/25 datako irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Gaur aurkezten dan modifikazio puntual honen helburua kale Nagusiko 35, 37 eta 39 zenbakietako eraikinak eraitsi eta bertan etxebizitzak egiteko proiektuari bide ematea da.

“Bertan, mantentzen da gaur egungo Kale Nagusiko profila eta horrek eragiten du eraikigarritasuna Plan Orokorren kontenplazten zuena baino handiagoa izatea eta ondorioz, beharrezkoa da plan orokorraren modifikazio puntual hau tramitatzea, aurrera eraman ahal izateko.

“Modifikazio puntual honen espedienteari otsaileko plenoan eman zitzaion hasiera. Bertan aurkeztu zen parte hartze prozesua eta jakin, hemen aurretzen dut, parte hartze prozesu horretako bilera irekia ekainaren 12an izango dela sei t´erditan pleno areto honetan, baina bueno hori behar bezala informatu eta zabalduko dugu.

“Gaur aurkezten da Plan Orokorren modifikazio puntualaren hasierako onespina. Behin gaur onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko da hilabeteko epean alegazioak eta egin ahal izateko.”

Alkate jaunak, proposamena eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren proposamena hasierako izaeraz onartzea, "Alde Zaharra" HEA 1. 1.5. Kale Nagusia 39, 2024ko otsailean Alejandro Sainz de la Encina arkitektoak idatzia eta 2024ko apirilaren 9an aurkeztua.

2.- HAPOren Aldaketa Puntualaren hasierako onespina gutxienez hilabeteko epean jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalerrian zabalkunderik handiena duen egunkarian



edo egunkarietan eta Udalaren webgunean argitaratuz, aztertu eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3.- Hasierako onespeneraren berri ematea sektore-eskumenak dituzten herri-administrazioei, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten.

4.- Txostena eskatzea Euskararen Udal Sailari, Euskadiko toki-erakundeen hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboaren normalizazioari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan aurreikusitako hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-txostena egitea bidezkoa den zehazteko.

5.- Erabakia udaleko Zerbitzu eta Ekonomia eta Ogasun sailei jakinaraztea.

6.- Erabakia Construcciones Orbero SAri jakinaraztea.

3. Zuzenketa onartzea, Andoingo HAPOko 3- SARMENDI HEAko hirigintza-fitxako C atalean, Egiturazko Hirigintza Erregimeneko Sustapen librea bizitegi-erabilerako guztizko eraikigarritasunaren ehunekoan egindako akatsa.

Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu Bateginaren Hirigintza Arauak. Arau partikularrak B Dokumentuko Sarmendi 3 HEAko hirigintza-fitxan akats bat antzeman da.

Ikusirik 2024ko otsailaren 27an udal arkitektoak egindako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea Batzorde Irizpenemailearen 2024/04/25 datako irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on berriro ere. Aurkezten den proposamena, berez erredakzio akats baten zuzenketa besteik ez da. Idazkari jaunak esan bezala Sarmendi eremuko fitxaren C atalean, eraikigarritasuna, metro karratuak ondo jasota zeuden, baina 100koak etzeuden ondo jasota eta ondorioz, etxebizitza libreetan %60 zegoen jarrita eta %80 jartzen da eta horrela fitxa zuzenduta geldituko da.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate jaunak propoamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos, udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bateginaren Hirigintza arauak. Arau partikularrak B Dokumentuko Sarmendi 3 HEAko hirigintza-fitxan egindako akatsa zuzentzea. Testu hori 110 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2011ko ekainaren 10ean.

1. puntuan (Sarmendi 3 HEAko hirigintza-fitxako III. HIRIGINTZA-ARAUBIDE ESTRUKTURALAREN epigrafearen antolamendua/sailkapena, zehazki erabilera-baldintzen C atalean), bizitegi-erabileraren eraikigarritasun osoa definitzean, honako hau adierazi behar da:

*Egoitza erabilerako eraikigarritasuna, orotara 3.950 m²(t)

- ET erregimenari lotua – %20 790 m²(t)
- Sustapen librekoa – %80 3.160 m²(t)

2.-. Aipatutako zuzenketa Gipuzkoako Agiri Ofizialean eta udal web orrian argitaratzea.

4. Bizitegitarako hiri-lurzoruko eremu finkatueta behe-solairuetako lokalen erabilera aldatzeko udal ordenantza arautzailea aldatzea.

Kontuan harturik, hirigintzako zinegotzi ahaldunaren 2023ko abenduaren 1eko proposamenaren bitartez, etxebizitzarako hirilurreko eremu finkatueta dauden beheko oinetako eta beste lokalen erabilera aldatzera bideratutako jarduketei dagokien udal ordenantza arautzailearen proiektu edo egitasmoa idatzi baino lehenago kontsulta deitzea erabaki zela, 20 laneguneko epean, iragarkia Udalaren webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasirik, nahi eta egoki deritzoten herritarrek, erakundeek eta elkarteek galdetegi honetan jasotako gaiari buruzko iritziak bidal zituzaten, posta elektronikoko buzoi honen bitartez: ataria@andoain.eus. Hori guztia, Administrazio Publiko Ororentzako Jardunbide Administrazioari buruzko, urriak 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua



xedatutakoaren arabera.

Kontuan harturik, kontsulta publikoaren aipaturiko epean, 2024ko urtarrilaren 30ean bukatu zena, ez dela inolako iritzirik jaso.

Ikusirik kontsulta epea igaro ondoren, etxebizitzarako hirilurreko eremu finkatuetan dauden beheko oinetako eta beste lokalen erabilera aldatzera bideratutako jarduketei dagokien udal ordenantza arautzailearen idatzitako proposamena.

Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik 2024ko maiatzaren 10ean udal arkitektoak eta hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak emandako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obrak, Ingurumena eta Landagunea Batzordearen 2024/05/16 datako irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Proposamen honetan, hiri lurreko eremu finkatutako lokalen erabilera, hau da, etxebizitza erabilerara ahalbidetzen duen ordenantza berria izango litzake eta behin hau indarrean sartzen denean, zaharra balio gabe geldituko litzake.

“Ordenantza honen idazketa aurreko legealdian hasi zen eta orain emango diogu bukaera. Bi helburu nagusi ditu. Eta alde batetik, gaur egun indarrean dagoen ordenantza, jasotzen den lokal kopurua handitzea edo zabaltzea, ikusita herrian dagoen etxebizitza arazoa, eta bestetik bizigarritasun dekretu berrira egokitzea herriko ordenantza.

“Esan dezakegu helburua lortu dela, egokitu da ordenantza berria eta bestetik, lehen zeuden 27 higiezin eta gaur egun, ordenantza berrian 78 higiezinera igotzen da. Ordun esan dezakegu ia hirukoiztu egin dela lokal kopurua.

“Hala ere, azpimarratu behar dugu ordenantzan agertzen den zerrenda, ordenantzaren balio eremua edo finkatzen duela, hau da, bertako lokal bati ere etxebizitza erabilera onartu ahal izateko beharrezkoa izango da proiektu bat aurkeztea. Eta proiektu honek ordenantzako eta bizigarritasun dekretuko baldintza guztiak betetzen dituen emango da erabilera aldaketa hori. Beraz, erabilera aldaketa hau emateko bai izango da beharrezkoa lokal hori zerrenda honetan egotea, baina lokala zerrenda honetan egoteak ez du esan nahi automatikoki bermatzen denik erabilera aldaketa hori egin ahal izango dela.

“Azalpen hau eman ondoren, hasierako izaeraz onartzea proposatzen da, eta irekiko da 30 eguneko epea iradokizunak eta alegazioak jasotzeko.

Alkate jaunak, proposamena eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. Como ha comentado la concejala, señorita Garazi Usandizaga. Efectivamente, digamos, esta modificación de la ordenanza se puso en marcha en la pasada legislatura porque en el equipo de gobierno anterior considerábamos importante esta modificación. Porque estamos dando una opción de respuesta a una de las mayores preocupaciones que actualmente tiene nuestra sociedad, y en especial nuestras y nuestros jóvenes, como es el acceso a una vivienda asequible y crear nuevas oportunidades habitacionales en Andoain.

“Por ello, el Grupo Municipal Socialista vamos a votar, como no podía ser de otra manera, a favor de esta modificación de ordenanza y, queremos indicar o instar en este caso al equipo de gobierno, que, como ya se indicó en la Comisión de Urbanismo, sería interesante continuar modificando aquellas ordenanzas municipales y así poder acotar en la medida de lo posible, la especulación que se pueda dar con este tipo de nuevas viviendas. Mila esker.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, etxebizitzarako hirilurreko eremu finkatuetan dauden etxabe edo beheko oinetako lokalen erabilera aldatzera bideratutako jarduketei dagokien udal ordenantza



arautzailearen aldaketa.

2. Administrazio-espedientea jendurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3. Espedientea jendurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin betiko izaeraz onetsita geratuko da.

5. Ziako erreka bideratzeko eta saneatzeko proiektuan definitutako obrek ukitutako ondasunen behin betiko zerrenda behin betiko onartzeko proposamena.

Andoainen Ziako erreka bideratzeko eta saneatzeko proiektua. 1. Fasea." gauzatzeko nahitaezko desjabetze espedientearen ondorioz ondasunak eta eskubideak nahitaez desjabetzeko espedientea hasi du Andoingo Udalak.

Kontuan izanik: Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak 2023ko martxoaren 29an emandako ebazpenaren bidez, behin betiko onartu ziren "Andoingo udalerrian Ziako erreka uholdeetatik babesteko proiektua. Hiri-zatia "eta" Andoainen Ziako erreka saneamendu-proiektuaren proiektu eguneratua ". Ondoren, Uraren Euskal Agentziak "Andoainen Ziako erreka bideratzeko eta saneatzeko proiektua. 1. fasea ", Sestra Ingeniería y Arquitectura enpresak egina.

Kontuan izanik: Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordetuta, 2023ko irailaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Andoingo Ziako erreka bideratzeko eta saneatzeko proiektuko 1. faseko obrak onura publikokotzat edo interes sozialekotasunak jotzea onartu zen, bai eta proiektuak eragindako lursailak okupatu edo eskuratu beharra ere. Horrez gain, desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakakoa ere onartu zen.

Kontuan izanik: zerrenda hori jendurrean jarri zen 2023ko urriaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2023ko urriaren 30eko Diario Vasco egunkarian argitaratutako iragarkien bidez, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zitzaizkien.

Kontuan izanik: jendurreko informazio epean jabe hauek aurkeztu zituzten alegazioak:

- Banimer 2007.
- ADIF
- José María Iraola Ormaechea
- Rociher SA.
- BRAHER INTERNACIONAL SA eta DEREKOR SA
- José María Atorrasagasti Alkain
- ACB CERRATO S.L., Andoni Cerrato Benítez eta Andoni Cerrato Bengoechea.

Kontuan izanik: Txostena egin da eta formulatutako alegazioak ebatzi egin dira, Udalbatzak 2024ko otsailaren 29ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Kontuan izanik: Alegazioen ebazpena alegazio-egileei jakinarazi zaie

Ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetze buruzko Legea; 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoru eta Hiri Birgaitze buruzko Testu Bategina onartzen duena; 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa (06-07-20 EHAA); 105/2008 Legea, ekainaren 3koak, lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriak hartzen dituenak, 46. artikuluan xedatutakoa; 7/85 Legea, apirilaren 2koak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21. artikulua eta bat datozenetan xedatutakoa; eta bat datorren gainerako legeria.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2024/05/16 datako irizpena.

Usandizaga andreak, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan aurkeztez da ZIAKOko obrarekin ikutzen diren ondasunen behin betiko zerrendaren onarpena. Bakarrik esan zerrenda hau jendurrean jarri zela 2023ko urrian eta interesatu guztiei ere



banan-banan jakinarazi zitzaiela. Epe honetan zazpi alegazio jaso ziren eta otsaileko plenoan ebatzi ziren alegazio hauek. Gaur zerrenda definitiboa ekartzen da jada, alegazio hauek kontuan hartuta.”

Alkate jaunak, proposamena eztabaidara jarri du eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoainen Ziako erreka bideratzeko eta saneatzeko proiektua. 1. Fasea” gauzatzeko nahitaezko desjabetze espedienteak eragiten dituen ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onartzen da, formulatutako alegazioak kontuan hartu ostean, egindako aldaketak barne.

2.- Erabakia «Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean», zabalkunde handieneko egunkarietako batean eta udaletxeko iragarki-taulan.

3.- Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie eta lehenengo eta bigarren atalek administrazio bidea amaitzen dutela ohartarazi ere bai. Beraz, BI HILABETEKO epean, jakinarazpena hartu eta biharamunetik zenbatzen hasita, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA jar dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzitegiaren aurrean, 29/1998 Legeak, uztailearen 13koak, Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren babesean.

Hala eta guztiz ere, ausaz, aurreko paragrafoan aipatzen den Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua jarri baino lehen, berariazko ebazpenaren aurka BERRAZTERTZE ERREKURTSOA jar daiteke eman duen organo beraren aurrean HILABETEKO epean. Epea jakinarazpena jasotzen den data kontuan hartuta, hurrengo egunetik hasiko da zenbatzen. Hori guztia, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

6. Andoingo 2023-2027 Euskararen Erabilera Plana onartzea.

Ikusirik, erakunde publikoetan, gure kasuan Andoingo Udalean, hizkuntza-politika egiteko bost urteko planen bitartez gauzatzen dela, 2023. urtean VII. plangintzaldian sartu ginelako eta Andoingo Udalar bere plan estrategikoa diseinatzea, onartzea eta abian jartzea dagokiola orangoan.

Ikusirik, plana idazteko 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua nahiz ondoren hori ordeztu duen 2024ko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua hartu direla kontuan, besteak beste.

Ikusirik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako KEMEN markora egokitu dela 2023-2027ko Andoingo Erabilera Plana, eta horretarako markoak finkatzen dituen ezinbesteko 14 adierazleak bermatu direla.

Ikusirik plan estrategiko hori gidatzen duten lau erronkak: zerbitzu kalitatea eta herritarra erdigunean jarrita dituen udala izatea, euskaraz gero eta gehiago lan egingo duen udala izatea, hizkuntza portaera kontzienteak dituen udal langileak eta hautetsiak izatea eta kudeaketa eta jarraipen sistema erakunde kudeaketa sisteman txertatzea.

Ikusirik planak jasotzen dituen bi eranskinak: lanpostuen zerrenda eta Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI).

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plan estrategikoari buruzko oniritzia igorri zuela 2024.02.14an 1281 zenbakiko sarrera-erregistroa duen idatziaren bidez.

Ikusirik dokumentuan txertatu den genero ikuspegia Udaleko berdintasun teknikariarekin egindako lanketaren emaitza dela.

Ikusirik plan estrategikoa 2024.05.15ean aurkeztu zela Langileen Komitean eta horren aldeko oniritzia jaso zuela.

Ikusirik euskara teknikariak 2024ko maiatzaren 10ean egindako txostena.

Ikusirik udal Idazkariak 2024ko maiatzaren 15ean egindako txostena.

Ikusirik, Euskararen Normalizaziorako Batzordearen 2024ko maiatzaren 20 datako irizpena.

Lasa andreak, Euskararen Normalkuntzarako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Andoingo udalaren zazpigarren plangintzaldirako, Erabilera Planaren onarpena dakarkigu gaurko plenora. Berez, 2023 eta 2027 epealdia horretan izango litzatekeena. Gure udalean hizkuntza politika egiteko bost urteko planen bitartez gauzatzen dugu eta hala, Andoingo Udalar bere



plan estrategikoa diseinatzea, onartzea eta abian jartzea dagokio, oraingoan, plan hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako Kemen markora egokitu da eta horretarako markoak finkatzen dituen ezinbesteko hamalau adierazleak bermatu dira.

“Lau erronka nagusiri helduko dio planak, besteak beste, aurrenekoa, zerbitzu kalitatea eta herritarra erdigunean jarrita dituen udala izatea.

“Bigarrenik, euskaraz gero eta gehiago lan egingo duen udala izatea.

“Hirugarren puntu bezala, hizkuntza portaera kontzienteak dituen udal langileak eta hautetsiak izatea.

“Eta laugarren erronkari dagokionez, kudeaketa eta jarraipen sistema erakundeko kudeaketa sisteman txertatzea. Administrazio publikoa garen heinean, guri dagokigu ereduia izan eta euskararen normalizazio bidean abangoardian joatea. Plan hau horretarako alea izatea nahi dugu.

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Arratsalde on. En primer lugar, nos gustaría reconocer el trabajo que se ha realizado en el Departamento de Euskera para la elaboración de este plan, así como del resto de departamentos municipales, que han tenido algún tipo de implicación en la elaboración del mismo. Por otro lado, desde el Grupo Municipal Socialista nos alegramos de que se hayan incorporado en el documento final nuestras propuestas y aportaciones.

“En este sentido, y siguiendo con el criterio del Partido Socialista de apoyar y seguir apoyando las medidas que tienen como fin el fomento del uso del euskera, vamos a votar afirmativamente el mismo.

“Por otro lado, y pese a que vamos a apoyar el documento, como también trasladamos en la comisión, nos sigue preocupando el contenido del informe que para tal fin realizó el secretario, y en este sentido sí que habrá que ver cómo va evolucionando la situación en la medida de lo que allí se traslada. Mila esker.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bistan da, batzordean ere eman genuen gure aldeko bozka eta gaur ere alde bozkatuko dugu. Bai, berriro ere mahai gainean jarri euskararen normalizazioa etengabe eta azkenaldian tamalez behar baino gehiago izaten ari den eraso oain aurrean, ezinbestekoa dela udaletxeak irmo erantzutea.

“Planak onartu? Bai, gaur garrantzitsua da alde botatzea, baina plan bat ona edo txarra izango da hori egikartzeko edo betetzeko daukagun gaitasunaren arabera, ez? Beraz, gaur argazkia oso positiboa da, baina ez dadila izan soilik brindis bat al aire egindakoa, baizik eta goazen plan hau bere osotasunean betetzera, ez?”

“Alde batetik herritarrekin administrazio bezala daukagun obligazioan, baina baita ere administrazioak berak, udalak berak etxe barrun alegia, langileen artean euskara benetan lan tresna erreala izan dadin, ez? Nik uste det lortu behar degula hori errealitate izatea. Zango trabak edo zailtasunak jarri beharrean bide hori erraztu behar dugula, ez? Beraz, plana onartu bai, baina saiatu gaitzen betetzen guztion artean.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Andoingo Udalaren VII. Plangintzaldirako Erabilera Plana onartzea 2023-2027 epealdirako.
2. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta Plan Estrategikoa, behin Udalbatzarrak onartu ondoren honakoak bete beharko dira:

- Udalaren webgunean argitaratu beharko dira.
- Hizkuntza politikaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari jakinaraziko dio Udalak agiri hauek onartu dituela, onartu eta hilabeteko epean.
- Udaleko langile eta ordezkari politikoen artean planaren nahiz hizkuntza irizpideen zabalkundea egingo da.

3. Behin Udalaren egitura berria onartuta, izendatzea zein organok bermatuko duen hizkuntza irizpideak betetzen direla eta planak aurrera egingen.

7. 2024/04 zk kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.



Alkate jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Aurrez hitz egin degun bezela. Hemen batetik kreditu transferentzia bat dago eta bestetik gerakinetik hartzen dugun kreditua dago, beraz, bi bozketa egingo ditugu.

“Lehenbizi, kreditu transferentziaren berri emango dut. Euskarari dagokio, zehazki, 3.100 euroko partida batetaz ari gara. Kontua da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako saio bat Andoainen egitea, Gipuzkoako Bertsolari Elkartekoak proposatu ziguten.

“Aurreko edizioetan ere txapelketako bertso saio bat hemen egin zenez, Andoainen egin zenez, prozedura bera jarraitu zuten. Baina, orain arte ez bezala, oraingoan Kontu-hartzailetzatik eta Idazkaritzaetik esan zitzaizen prozedura beste bat izan behar zuela. Hau da, kontratazio bat ez dela, dirulaguntza bat dela, eta ondorioz egin behar duguna da kreditu transferentzia bat. Hau da, euskerako partida batetik beste batera pasa.

“Orduan, hau da, lehenengo bozkatuko duguna. 3.100 euroko euskerako kreditu transferentzia.

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate jaunak kreditu transferentzien proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulu a	Izena	Egungo kredituak	Murriz keta	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	23.100,00	3.100,00	20.000,00
	GUZTIRA	23.100,00	3.100,00	20.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntz a	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	0,00	3.100,00	3.100,00
	GUZTIRA	0,00	3.100,00	3.100,00

Bigarrena.- Udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinaren aldaketa erabakiarena hau behin betikotzat joko da.

Hirugarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Alkate jaunak jarraitzen du:

“Bigarren, izango genukeena da, gerakinetik hartuko dugun dirua, proposamenean azaltzen dira denak, ez naiz hasiko banan-banan esaten, nagusienak esango ditut, baina daude batetik Hirigintza Sailekoak, besteetan Zerbitzuetakoak eta gero beste hainbat kontu azalduko ditutenak.

“Hirigintzan nagusienak dira; ZIAKO obra egiteko, lursailen desjabetzea. Dakizuten bezela, gaur egun



URArekin dugun hitzarmen baten ondorioza obra bat burutzen ari da. Hor batez ere, Ama Kandida eta Gudarien etorbidean obrak egin ahal izateko lursailak edo desjabetu behar dira eta prozedura hori Andoingo udalari dagokio.

“Kopurua 1.015.000 eurokoa da, andoingo udal arkitektoak egin duen estimazioa. Enpresa bat egiten ari da lursailen zerrenda osatzen eta prozesu hori amaitzen denean jakingo dugu prozedura edo gastu kopuru zehatza esan dezagun, baina udal arkitektoak kopuru hori esan zigunez, nahiz eta estimazio izan, ba hori jarri dugu.

“Ikerketa eta proiektuetarako 500.000 euroko aldaketa proposatzen degu. Hor ikusiko zenuten egungoak 255.612,50 euro azaltzen da. Hori da 2022an kiroldegirako eta gaur berriki onartu dugun lokalen ordenantzarako diru partida bat gorde zen eta 2022tik 2024ra ezin zen zuzenean transmititu eta horregatik azaltzen da modu horretara.

“Deslindeentzako ere diru kopuru bat dago. Jakina da gaur egungo baserrietan, mugarren bidez eta baserritarren jakinduriaren bidez egiten dira mugak edo, eta gure helburua da hurrengo hiru urteetan Andoingo mugak eta baserritarrak dituzten deslinde horiek digitalizatzea eta horretarako hiru urtean urtez-urte 40.000 euro jarriko ditugu.

“Badira inbertsio ezberdinak ere, Udaletxeko obrak eta hainbat eta hainbat gauza. Zerbitzuetan, Plazaolako drenajeko obrak daude, aparkaleku guneak eta errepideak konpondu nahi ditugu eta asfaltatu nahi ditugu. Adierazi genuen aurrekontuetako egunean, hoiek ere hortik joango direla, kale garbigailua edo barredora, urteak daramatzagu puntu honekin eta bueno oraingoan badirudi erosiko dela.

“Dumperra ere hautsi zaigu eta behar-beharrezkoa da zerbitzuetako lanak egiteko. Bueno, beste hainbat tresna drenaje eta saneamendurako, Gabriel Arestin eta beste hainbat auzoetan 860.000 euroko kopurua. Eta bueno beste hainbat gauza, txikiagoak dira, baina azaldu nahi ditut, bereziak direlako, batez ere hauek ez dira inbertsioak, baina azaldu nahi ditut. Batetik dago Giza Eskubideen alorreko gastuak.

“Dakizuen bezela, badaukagu Bizikidetzeta mahai bat eta hori kudeatzen du enpresa batek. Aurreikuspena ez zenez argia, nola izango zen aurtengo ikasturtea kopuru bat jarri genuen, baina orain diru-laguntza eskatzeko orduan kopuru hori handitzea eskatu zaigu eta horregatik gehitu dugu. Eskuhartze socio-educativo eta psikikoan, kontratu bat dago 204.104 eurokoa, nolabait esan zerbitzua ematen da, baina Andoingo haur eta nerabeak, Aquarium-era edo beste lekuetara joaten direnean, irteera horien gastuak aurtan ez zeuden aurreikusita eta, ikusita lehenengo hiru hilabete hauetan 3.000 euroko faktura izan dela, urteko aurreikuspena egin nahi izan dugu eta 15.000 euro txertatu.

“Beterri Buruntzako Mankomunitatearekin dakizuen bezala “encomienda de gestión” dugu hitzartuta eta %0,5 igo zaie bertako langileen soldatetan eta ondorioz aportazioa eguneratu behar da ere.

“Eta azkeneko puntua izango litzake enpleguko laguntzei dagokiona. Dakizuen Andoingo merkatari eta enpresa txikiei diruz laguntzeko Enplegu sailetik bideratzen dira eta bi kasutan ez zitzairen onartu dirulaguntza baina errekurtsioa jarri ondoren onartu zaie eta ondorioz, 3.100euroko faktura.

“Guztira, 4.124.430 euroko diru kopurua da, diru kopuru mardula. Hurrengo hilabeteetan Andoingo herrian egingo dien hainbat eta hainbat obra eta inbertsion eragin zuzena izango duena eta gure ustez, guztiak ere egin beharrekoak direnak.”

Jarraian, Alkate jaunak, proposamena eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Arratsalde on de nuevo. Ante la propuesta modificativa de crédito que nos presenta al equipo de gobierno, la postura del Grupo Municipal Socialista es clara.

“Como ha explicado el señor Alcalde, se nos traen aquí hoy diferentes partidas de varios departamentos, de Servicios, de Urbanismo, que sobrepasan los cuatro millones de euros y que saldrán del remanente de los ahorros de los que dispone este ayuntamiento.

“Importes que vienen a dotar económicamente las partidas presupuestarias que en fase de aprobación del proyecto de presupuestos iban muy a nuestro pesar, con cero euros, como es la de estudios y proyectos, por ejemplo, y que por lo tanto no se han podido ejecutar.

“Y por otro lado, otra serie de partidas a las que hay que aumentar el crédito, porque se prevé que, tal y como están, no van a llegar a hacer frente a los gastos previstos. En enero, en la fase de negociación de



los presupuestos, desde el Partido Socialista nos mostramos abiertos a llegar a un acuerdo también en lo que respecta al uso del remanente, pero, como ya has conocido en las necesidades pudimos encontrar puntos de encuentro, pero no así en lo que respecta a las prioridades que a juicio del Grupo Municipal Socialista tiene Andoain y, en esto, eh, nos vamos a centrar.

“Puntos de encuentro entre la necesidad y prioridad podemos encontrar varios. En este expediente incluso podemos llegar a coincidir con la propuesta del equipo de gobierno. Estamos a favor y vemos conveniente que se doten económicamente las partidas para poder realizar, por ejemplo, las obras correspondientes a Ziako y dar así continuidad a un proyecto que se viene trabajando desde la pasada legislatura, las obras del ayuntamiento, los deslindes, los equipamientos para locales, mantenimientos de extintores, Plazaola, así como los diferentes estudios que se plantean para realizar el anteproyecto de la red de saneamiento.

“Coincidimos también en la compra del dumper como una necesidad que tiene este ayuntamiento, y lo vemos necesario y prioritario. Tengo, como por ejemplo, la partida correspondiente para la compra de la nueva barredora y la adaptación de la misma. Estamos de acuerdo en que se dote con 25.000 euros la partida para obras del colegio Ondarreta. Lo que no compartimos es que Ondarreta no tuviese de origen disponible esa cantidad con lo que se necesitaba en cuanto a la renovación, asfaltado o adaptación, porque no sabemos muy bien qué es lo que quiere hacer, eh. El equipo de gobierno, con los p rkings del municipio, podemos estar de acuerdo, pese a que, como digo, a este grupo municipal le falta informaci n, plazos y presupuestos, pero coincidimos en la necesidad y la prioridad de abordar el problema de aparcamiento existente en el municipio. Estamos abiertos a recibir ese tipo de informaci n.

“Y ante todo, el Grupo Municipal Socialista est  firmemente comprometido con la ejecuci n del proyecto completo en todas sus fases, de la renovaci n y la urbanizaci n de la zona de La Salle, Gabriel, Aresti y Galardi, cuya redacci n del proyecto tambi n se realiz  durante la pasada legislatura y la cual esperamos y queremos que se realice cuanto antes. Hasta aqu , como he dicho, no tenemos ning n problema, y encontramos puntos de encuentro.

“Ahora bien, las prioridades y las formas. Desde el Grupo Municipal Socialista seguimos sin entender c mo es posible que hasta finales de mayo m s el mes necesario para su disponibilidad, que nos pondremos en junio, lo que viene siendo la mitad del a o, no vayamos a tener cr dito en una partida tan importante y tan esencial para el desarrollo de Andoain como es la correspondiente a la realizaci n de estudios y proyectos del  rea de urbanismo y, en este sentido me gustar  incidir y explicar a la ciudadan a que esta partida, como ya mencionamos en el pleno de presupuestos de febrero, corresponde a la necesidad, para que haya dinero para poder ejecutar cualquier nuevo proyecto o estudio de urbanismo en Andoain. Cero euros es lo que se destin  a esa partida tan importante y tan necesaria.

“Me gustar  recordar que mientras no hay presupuesto no se puede hacer nada. Entonces, hemos estado seis meses sin poder hacer absolutamente nada nuevo. Y ahora nos encontramos con que pasamos de una previsi n de primeros de a o de una partida de 750.000 a 500.000 euros. Ya nos han explicado los motivos en la comisi n. Y en el contenido de los proyectos previsto, pues, bien, aqu  s  que no tenemos un punto de encuentro con ustedes. Del listado de proyectos que nos han facilitado hay algunos que consideramos necesarios, pero que, a juicio de este grupo, no son prioritarios. Echamos en falta mayor concreci n y realidad.

“Por otro lado, nos ha causado una desagradable sorpresa el que no se haya incluido en este apartado un proyecto demandado y nacido de un proceso de participaci n ciudadana, como es el correspondiente a la creaci n de itinerarios accesibles para peatones que unen el barrio Olagain y la calle Joaqu n Larreta con Kale Berria, y que fue propuesto y seleccionado en 2023 por las y los ciudadanos de Andoain, el cual, por cierto, tenemos por escrito el compromiso del equipo de gobierno de que iba a ser incluido en este apartado y asumido como tal, incumpl ndose, por lo tanto un mandato ciudadano y un compromiso adquirido con ellas y ellos.

“Por otro lado, hay otra serie de proyectos cuyo estudio se inici  en la pasada legislatura, uno en concreto, que consist a en instalar un ascensor que un a la calle Juan Bautista Erro con Joaqu n Larreta, para poder facilitar as  el acceso de las personas con movilidad reducida y acercar y facilitar la movilidad



peatonal entre la zona de Plazaola hasta el centro de Andoain, que tampoco vemos y que al Grupo Municipal Socialista nos hubiese gustado que hubiese estado, porque apostamos por hacer de Andoain un lugar mucho más accesible y amable para el peatón.

